

# HEDABIDEEN PAPERA INDARKERIA MATXISTEN AURREAN: INFORMAZIOA ALA DESINFORMAZIOA?



## Argitaratua:



[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

### BIZKAIA

Mugarik Gabe  
Vicente Garamendi Taldea 5, lonja - 48006 Bilbo  
94.415.43.07 | [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

### GIPUZKOA

Mugarik Gabe  
Katalina Elizegi 46, baxua 3. atea – 20009 Donostia  
943.445.977 | [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

### ARABA

Mugarik Gabe  
"Itziar" elkartein etxea Zalburu enparantza z/g  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945.277.385 | [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

## Finantziatua:



2018ko ekaina

**Diseinua:** Patirke Belaza

**Itzulpena:** Komunika

**Maketazioa:** Binari Comunicación



### Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

# AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
<b>1. Hedabideen papera indarkeria matxisten aurkako borrokan. - June Fernandez.....</b>	<b>6</b>
<b>2. Metodologia.....</b>	<b>10</b>
<b>3. Conclusiones generales del estudio .....</b>	<b>13</b>
<b>3.1. Hedabideei buruz .....</b>	<b>13</b>
<b>3.2. Erakundeek edota alderdi politikoek hedabideetan duten diskurtsoaz .....</b>	<b>17</b>
<b>4. Hautemandako kazetaritza-praktika onak .....</b>	<b>20</b>
<b>5. Zeri esaten diogu indarkeria matxisten trataera okerra? Hautemandako alderdiak .....</b>	<b>25</b>
<b>6. Gomendioak .....</b>	<b>30</b>
<b>6.1. Hedabideentzako gomendioak .....</b>	<b>30</b>
<b>6.2. Erakunde publikoentzako gomendioak.....</b>	<b>31</b>
<b>6.3. Alderdi politikoentzako gomendioak .....</b>	<b>31</b>
<b>7. Eranskinak .....</b>	<b>32</b>
1. eranskina: Datuen analisisa .....	32
2. eranskina: Datuen azterketa.....	40
3. eranskina: Hipotesiak .....	53

# Sarrera

2016ko otsailaren 15etik uztailaren 15era bost egunkari azertu genituen egunero. Indarkeria matxisten gaia nola lantzen zuten ikertzen saiatu ginen horrela, eta aldi berean arreta berezia eskaini genion erakundeen edota alderdi politikoen diskurtsoa ezagutzeari, hedabideen bitartez heltzen baita jendartearengana.

Hedabideek, iritzia sortzen duten heinean, funtsezko rola daukate indarkeria matxisten aurkako borrokan. Izan ere, indarkeria salatzen edo ezabatzen lagundu dezakete, edo, aitzitik, zenbait kazetaritza-praktikaren bidez, albisteetan ageri diren estereotipoak eta analisi sinplistikak eta testuingururik gabekoak elikatu ditzakete, eta hortaz, betikotu daitezten sustatu.

Azken urteotan hedabide askok jokaera-kodeak egin dituzte, eta aurrerabide nabarmenak egon dira indarkeria matxistei egiten zaien trataerari dagokionez. Oraindik ere, ordea, asko dago egiteke indarkeria matxisten aurkako egiazko herritar-kontzientzia sustatzen duen lana egin dadin. 2016. urte hasieran 51 hedabidek, horien artean ikerketa honetan aztertutako egunkariak, bat egin zuten Emakundeak sustatutako Begira Aholku Batzordeak (publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea) bultzatutako kodearekin.

Lan honi heltzeko orduan hainbat interesgunetatik abiatu gara. Lehenbizikoa, aipatu bezala, hedabideak berak albisteak aukeratzeko edo baztertzeko daukan rola izan da, baita albiste horien trataera ere. Beste aztergaiak izan dira, besteak beste, erakunde publikoen edota alderdi politikoen diskurtsoak, hedabideetan baitute bozgorailu handiena: zein den beren diskurtsoa, zein ahots daukaten indarkeria matxistei dagokienean.

Honako galderak sortu zitzaizkigun:

- Zein indarkeria motaz informatzen dute, eta zeintzuk dira ikusezinak?
- Zein da erakundeen diskurtsoa?
- Zein da gizartearen diskurtsoa?
- Hedabideek sustatzen al dute indarkeria matxistei buruzko mitoak gailentzea?
- Hedabideek informazio baliagarria eskaintzen al dute egoera berean dauden beste emakumeentzako?
- Terminologia egokia erabiltzen dute?
- Gertaeren egiturazko kausa adierazten dute?

Egunkari hauek aztertuta, asmoa da galdera hauei erantzutea eta aholkuak bideratzea jendartearen iruditeria aldatu dadin, indarkeria matxistak ezabatzeko bidean lagungarria izateko, edo, gutxienez, jendartearen mezuak zein errealitate honi buruzko analisiak guztiz iraultzeko ekarpena egiteko.



2010. urtean abiatu genuen Enfrentamos todas las violencias machistas. Patriarkaturik Gabe denok jabe kanpaina. Orduetik, hainbat unetan eta hainbat tresnaz lagunduta egin dugulan hedabideekin, eragile gakoak baitira indarkeria matxisten gaineko ikuspegia aldatzeko. Ikerketa honen bidez ekarpena egin nahiko genuke kazetaritza-praktika zalantzan jartzen jarraitzeko bidean; kazetaritza izan dadin gure gizartean berebiziko garrantzia duen gai honi zorrotasunez heltzen dion praktika. Izan ere, guzti-guztiok inplikatu behar gara guztiz ezabatu nahi badugu.

Espero dugu ikerketa hau baliagarria izan dadin hedabideentzat (ez soilik aztertutako hedabideentzat). Horrela, hedabideek, beren eguneroko jardunetik aldaketak sortu ahal izango dituzte iruditeria kolektiboan, eta ekarpena egin eraldaketa sozialaren bidean, emakumeen eskubideen defentsan eta indarkeria matxistak ezabatzeko prozesuan.



# 1. Hedabideen papera indarkeria matxisten aurkako borrokan

Zaila da ezinegonari eustea, urteak daramatzazunean indarkeria matxisten aurkako borrokan murgilduta. 2018ko martxoaren 8ko greba historikoa, Sanferminetako talde bortxaketa sexu-abusua «eta ez sexu-erasoa» dela dioen sententziak eragindako mobilizazioak, sarean hedatu diren #MeToo eta #Cuéntalo kanpainak... Horiek guztiek amorrurik kolektiboa adierazten dute, menderakuntza patriarkalaren adierazpenen aurrean. Ohartu gara indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea daukagula, eta orain nahi dugula. Indarkeria sotilenak eta normalizatuenak identifikatzen ikasi dugu, eta behin identifikatutakoan, ezinezkoa da ezikusiarrena egitea. Ana Orantesen erailketa 1997an eta Nagore Laffagerena 2008an inflexio puntuak izan ziren bikote-harremanen barneko indarkeria matxistari eta jai giroko sexu-indarkeriari dagokienean, hurrenez hurren. Indarkeria matxistak ezabatzea urgentziazkoa dela uste dugun arren, azken bi hamarkadetan aldaketa kultural eta politiko geldiezina egon da, indarkeria horien aitortzari eta kontzeptualizazioari dagokionez, behintzat.

Hedabideak prozesu horren guztiaren lekuko eta partaide izan dira. Ikusi dugu azken urteotan hedabideek beren agendetan txertatu dituztela lehenago soilik espazio feministetan lantzen ziren kontuak: jai giroko sexu-erasoetatik hasi, eta “mikromatxismo” deitutako eguneroko sexismo aldaeretara; esaterako, gehiegizko espazioa hartzea adierazpen sinboliko gisa (‘manspreading’ delakoa). Hedabide digitalen kasuan bereziki, agerikoa da matxismoaren adierazpen anitzez aritzeak eta elkarren arteko loturak ikusarazteak interesa duela eta web trafikoa handia eragiten duela. Esaterako, Playground Magazineren —bideo biraletan bereizitutako hedabidea, hain zuzen— historian gehien bistaratu den bideoa Ana Bellaren lekukotza da; Ana Bellak indarkeria matxistari biziraun zion eta Ana Bella fundazioa sortu zuen. 2018ko maiatzerako bere bideoa 44 milioi aldiz bistaratu eta 878.000 aldiz partekatu da Facebooken. Sare sozialak, eta, zehatzago, Twitter, tresna baliagarria izan dira herritarrek hedabideei izenburu sexistak adierazteko; ez soilik indarkeria matxistari buruzko informazioari buruz, baizik eta kirola edo politikari buruzko albisteetan ere, zenbaitetan hedabideek bere jarrera zuzentzea lortuz.

Erakundeetatik, gizarte-antolakundeetatik edo mugimendu feministatik ohikoa da kezka adieraztea hedabideen rola dela eta, aurreiritzi eta estereotipo sexistak hedatzean daukaten arduragatik. Kazetari lana gero eta prekarioagoa da eta mesfidantza gehiago sorrarazten du. Kazetaritza arloak ez du ondo hartzen arazo sozialen erantzuletzat jotzea, ez badira aitortzen orain arteko lorpenak -bat aipatzearren, «pasio krimena» eta «etxeko indarkeria» bezalako adierazpenak ezabatu izana- kazetaritza kritiko eta berezitu bat lortzeko dauden oztopoak aitortzearekin batera. Hori dela eta, komunikatzaile feminista gisa, ikuspegi kritikoa izan dezakegu komunikazio talde boteretsu eta eragin handienekoetan indarkeria matxistaren inguruan egiten den trataerari buruz; baina kazetari gisa, sentitzen dugu beharrezkoa dela analisi kritikoa egiteko aitortzatik abiatzea, praktika onak gehiago nabarmentzen hastea eta kontuan hartzea lan bikaina egiten duten profesional guzti horiek, nahiz eta tarifa negargarrien truke lan egin eta haien nagusiek sentsazionalismoa besterik eskatzen ez dieten. Azterlan honetan frogatzen den moduan, egunkari batetik bestera nabarmen aldatzen da berdintasunaren alde eta



indarkeria matxisten kontra dagoen konpromiso editoriala. Hala ere, Pikara Magazinen badakigu hedabide guztietan daudela konpromisodun kazetariak; izan ere, gure aldizkaria bera hainbat hedabidetako kazetariak sortu zuten, Berria eta El Correon aritutakoek, adibidez, eta gure kolaboratzaileek El Mundo, Público, Argia eta El Confidencial bezalako hedabideetan ere argitaratzen dituzte beren lanak.

Bidezkoa da aitortzea kazetari lana autoerregulazio prozesuetan murgildu izan dela. Adibidez, RTVEko informazioaren trataerari buruzko azterketa (2006), Público egunkariako dekalogo (2008), Emakundek bultzatutako Begira kodea, euskal hedabideetako kazetarien artean eratu zena (2015), prentsa elkarteek egindako praktika onen kodeak edo kazetariak Kataluniako ORIGEN behatokia sortzea (2016); azken horrek kazetari jardunari zuzendutako argibideak eskaintzen ditu, indarkeria matxistei buruz telebistan ageri diren albisteak modu eraikitzailean eta orekatuan aztertuta. Hala ere, etengabe hausnartzeko eta ikasteko beharra dago, etengabe eraldatzen direlako ere indarkeriaren pertzepzioa eta ikuskera bera, gomendatzen den lexikoa edo fokuarien barnean edo kanpoan geratzen diren indarkeria motak. Mugarik Gabe bezalako antolakundeek ikuspuntuak, honelako ikerketekin, lagundu egiten digu erronka berriak hautematen eta dagoeneko hobeto egiten duguna indartzen.

## Zer kontatu nahi dute biziraun duten emakumeek?

Mugarik Gaberen “asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan”<sup>1</sup> izeneko ikerketari esker, berriki ikasi dudan zerbait da indarkeria pairatzen duten emakumeengan pentsatzean errepresentazio-objektu direla pentsatzeari uztea, eta horren ordezkari haiengan subjektu gisa pentsatzea. Hainbat ikerketa eta txostenek aztertu dute indarkeria matxistaren biktimak hedabideetan nola irudikatzen diren, baina paradoxa da ikerketa horietako gehienek biktimak rol pasiboan azaltzen dituztela. Ikerketa gutxitan aztertzen dira, ‘Asfalto arteko loreak’ delakoan egiten den moduan, zein estrategia garatzen dituzten emakume biktimek egia, justizia, erreparazioa eta osatzea eskuratzeko.

Gogora dezagun Ana Orantes senar ohiak erail zueneko, 1997an, pairatzen zituen tratatu txarrak telebistako plato batean kontatu ostean; inflexio puntutzat hartzen da hori, eraldatu egin baitzituen erakundeek politikak, hedabideen trataera eta indarkeria matxistarekiko gizarte-ikuskera. Gogoratu dezagun Angela Gonzalez; haren senar ohiak elkarrekin izandako alaba hil zuen epaileak haren kontrako 47 salaketa gaitzetsi ostean. Gogoratu ditzagun Juana Rivas, Maria Salmeron, Susana Guerrero. Haiek guztiek hedabideetara jo zuten aliatutzat zituztelako, beren istorioak ezagutzera emateko. Ez soilik beren istorio partikularrentzako nolabaiteko erantzuna eskuratzeko; aitzitik, eraldaketa sozialeko bokazioa zeukaten hedabideetara jo zutenean, haiek bizi izandakoa beste inork bizi ez zezan, alegia.

‘Asfalto arteko loreak’ ikerketan Asun Casasolak —2008ko Sanferminetan eraildako Nagore Laffageren ama— nabarmentzen du bere istorioa kontatzea “bizirauteko eta borrokatzeko estrategia” dela, baliagarria izan daitekeena “beste neskentzako, gizarteak hausnartu dezan eta aldatu dadin”. Hala egiten du berak hedabideetan, ikastetxeetan, emakume

<sup>1</sup> Asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan, Mugarik Gabe, (2017).



elkarteen ekitaldietan. Bere ahotan, horren truke aitortza eta maitasuna jasotzen ditu, eta areago, beste herrialde eta hirietara bidaiatu izan duenean, kontatzen du emakumeak hurbildu izan zaizkiola besarkada bat eman eta beren babesa adierazteko.

Aipatzekoa da ere Casasolak balantze ona egiten duela kazetarien aldetik jaso duen tratua. Gogoan du behin telebistako kameran batzuk joan zitzaizkiola etxera Nagoreren erailketaren urtemugaren harira, eta Asun guztiz nahastuta topatu zutela, Nagore bizirik egongo balitz bezala hitz egiten. “Ez zuten kamera ez ezer ere ireki, nire semea etorri arte itxaron zuten”. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea. Izan ere, kazetariak izaki bihozgabe eta anker gisa irudikatzeak presioa egiteko eta erreparazioa lortzeko hedabideetara jotzeko asmoa duten emakumeak gogogabetu ditzake.

Kontua da komunikabideak eragile birbiktimizatzaileak izan daitezkeela, edo, bestalde, aliatu salatzaileak izan daitezke. Horren adibide grafikoa jasotzen da ‘Asfalto arteko loreak’ ikerketan: jatorri errusiarreko emakume migratzaile baten kasua da, Galizian armazko sexu-erasoa pairatu zuela salatu zuena, eta salaketa faltsuek itota bukatu zuen. Tokiko prentsan poliziaren bertsioa gailendu zen, biktimaren bertsioa baliogabetzen zuena. Geroago, ordea, emakume atzerriarrak barneratzeko zentro batean sartu zuten, eta komunikabideen presioa erabakigarria izan zen emakumea ez deportatzeko.

Ikerketa horretan parte hartu ondoren, nire buruari galdetzen diot indarkeriari biziraun dioten emakumeek nola hartu dezaketen parte indarkeria matxistari buruzko informazio trataeraren inguruko trebakuntza eta autoerregulazio prozesuetan. Nola sentitzen dira biktimaren sinesgarritasuna zalantzan jartzen duen sexu-indarkeriari buruzko albiste baten aurrean? Identifikatuta sentitzen dira “tratu txarren biktimez” erakundeen albiste eta kanpainetan ematen den irudiarekin? Biziraun duten emakumeek nola nahi dute haiei deitzea edo argazkiak ateratzea?

Zentzu horretan, erreferentziazko ekimena da Aadas Asistència Dones elkarteak egindako ikerketa “Dones valentes. Per una nova informació sobre les violències sexuals”. Bertan, sexu-indarkeriari biziraun dioten emakume talde batek hedabide katalanetan argitaratutako sexu-erasoei buruzko albisteak aztertu zituen, eta prentsaurrekoan aurkeztu zuten azterketa. Albiste gehienek biktima erantzule egiten dutela eta, biktimen ondoeza areagotu zuten eta horrek sexu-indarkeria bizi izan dutenen osatze emozionala oztopatzen zuela sentitu zuten. Ez dirudi zentzugabea pentsatzea beren lan egiteko moduak berrikusi nahi ez dituzten kazetariak, ziurrenik, hobeto erreakzionatuko dutela biziraun duten emakumeek interpelatzen badituzte, betiko genero adituek interpelatu ordez.

Aldi berean, irakurtzear zauden azterketa honen ondorio nabarmenetakoa da ahots feministak dituzten hedabideak direla —izan adituak edo emakume taldeen ordezkariak, zentzua baldin badu bereizketa horrek berak— indarkeria matxistari lotutako albisteak testuinguruan hoberen kokatzen dituztenak. Har dezagun “manada” delakoaren epaiketa, Sanferminetako talde bortxaketagatik: Pikaran, Monica Ortiz Rios psikologo eta sexologo feministak adierazi zuen sententziak ez zuela kontuan hartu baimendu gabeko eiakulazioak eta profilaxi gabekoak ere indarkeria direla. Soilik genero ikuspuntua duen aditu batek eskaini ditzake halako gakoak. Feminismoa da sexu-eskubideen arloan ezagutza handienetakoa eskaini duen pentsamendu eskola eta gizarte-mugimenduetako bat. Hala ere, hedabide gutxi aitortzen eta aprobetxatzen dute hori sexu-indarkeriari buruzko albisteetarako ere. Kazetari gisa, ahots horiek gure kronikak osatzeaz gain, gure begirada ere elikatu egiten dute.





## #LasPeriodistasParamos, “besteei buruz” hitz egiteari uzteko

Nire kide Andrea Momoitiok dio kazetarion erreminta-kutxak tresna fisikoak dituela, batetik —grabagailuak, koadernoak, kamerak— eta bestetik, “garrantzitsuenak, azalean daramatzagu, eta gure min propioei lotuta daude, gure egoera pertsonalei, zeharkatzen gaituzten diskriminazioei edo osatzen gaituzten pribilegioei lotuta”.

Indarkeria matxistaz aritzen garenean ez dugu beste batzuek gauzatzen eta pairatzen duten indarkeriaz hitz egiten. Kontrara, errealtate ezaguna, hurbila eta egunerokoa dugu, gu guztiok interpelatzen gaituena, horren kontzientzia izan ala ez. Neutraltasun eta urruntasun faltsu bat sustatzen duen kazetaritza-kultura baten eta ohiko klixeeen aurrean, kontatzen dudanak nirekin zuzenean zerikusia duela sentitzeak bide ematen dio erantzukizunari, enpatiari, zorrotasunari eta sakontasunari. Kazetariren bat nirekin harremanetan jarri izan denean sexu-indarkeriaren biktimaren bat “lortu” diezadan eskatzeko, proposatu izan diot bere inguruko batengana jo dezala (lagunen bat, senideren bat, lankideren bat), eta bere istorioa maitasunez eta arduraz kontatu dezala. Horrela funtzionatzen dugu Pikaran, hurbiltasunetik, espazioa emanez emakumeek beren kontakizun propioa eskaini dezaten, gure kontakizuna ere badelako.

2018ko martxoaren 8ko grebako ezusteko mugarrietako bat #LasPeriodistasParamos manifestua izan zen. Manifestuari atxikimendua adierazi zioten 8.000 kazetarik baino gehiagok, eta honako zatiak nabarmendu nahiko nituzke: “Kazetari askok pairatu dute sexu-jazarpena lankide, nagusi eta are informazio-iturrien aldetik. Bestalde, mespretxua, laineza, paternalismoa eta mansplaininga eguneroko kontua dira erredakzioetan zein hortik kanpo, gure eguneroko jardunean. Komunikazio langile gisa online jazarpena pairatzen dugu, eta iruzkin biolentoak eta matxistak gure albisteetan. (...) Eskaintzen duten errealtatearen bertsioa, maiz, partziala eta lerraturikoa da ez dituelako neurri berean kontuan hartzen emakumeen esperientziak, kontakizunak eta bizipenak, eta sarritan bigarren mailako pertsonaia gisa edo estereotipoen bidez irudikatzen dituztelako. Horren adibidea da indarkeria matxistaren trataera; oraindik ere, askotan, biktimari egozten zaio errua. Lehenengo orrialdeak, hedabideen eta albiste-saioen hasierak, gizonak erabakitzen dituzte”.

2016ko azaroan Burgosko El Mundoko kazetari bat hil zuen bere senar ohiak. Barbijaputa artikulugileak eldiario.es atarian aztertu zuen El Mundok albisteari eskainitako trataera bikaina: titular irmoak fokua hiltzailearengan jartzen zuen, aitortza biktimarekiko, eta enfasia tokiko erakundeen eta inguruko lankideen gaitzespena eta mina adierazteko. Barbijaputak hedabideei eskatzen zien feminizidio oro horrela tratatzeko, “guztiak Yolanda balira bezala, guztiak izan baitziren eta guztiak izan gaitzezkeelako Yolanda”.

Indarkeria matxistari buruzko informazio arduratsua egiten dugu, ez soilik gure eginkizun profesionala delako, baizik eta indarkeriarik gabeko bizitzari ekarpena egin nahi diogulako, guztiontzako; baita guretzako ere.

‘June Fernández, kazetaria eta Pikara Magazineeko koordinatzailea’



## 2. Metodologia

Egunero 5 egunkari aztertzea lan neketsua izan da, berrikusi beharreko material-kopuru handia dela eta. Aztertzeo hautatu ditugun egunkariak EAEn eta Nafarroan argitaraldi handiena dutenak izan dira, baita euskarazko (osorik edo zatika) bi hedabide ere: El Correo, El Diario de Noticias de Navarra (aurrerantzean, El Diario), Gara, Berria, eta Deia.

Datu interesgarriak jasotzeko fitxa bat egin dugu, non 18 item ezarri ditugun: sistematizatu egin dugu erabilitako terminologia, emakume biktimei eta erasotzaileei buruz ematen diren datuak, kontsultatutako iturriak, aztertutako albistea egunkariko zein sailetan dagoen, erakundeen presentzia edo absentzia, etab.

Nabarmendu nahiko genuke sistematizazio hori, dossier hori, hedabideen trataerari buruzko analisi kualitatibo baten emaitza dela, nahiz eta hurbilpen kuantitatibo batetik abiatu garen.

Prozesu horretan Pikara Magazine-ren babesa izan dugu. Izan ere, fitxak egiten laguntzeaz gain, dokumentu honen berrikuspenean ere aritu dira; haien proposamenak eta esperientzia guretzako irakaspen iturri dira beti.

Sakonago aztertu nahi izanez gero, kontsultatu 1.go eranskina. Behaketa fitxa.

Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak dira giza eskubideen urraketak, lehenetsun handieneko arazo politikoa. Indarkeria tresna historikoa da menderakuntza patriarkalaren estrategiarentzako, eta indarkeriaren aurkako borroka mundu osoko agenda feministen helburua da<sup>2</sup>.

Emakumeen aurkako indarkeriak anitzak eta jatorri askotakoak dira; hortaz, askotan eztabaidatzen dira bere inguruko definizioak, tipologiak eta sailkapenak. Joera eta ikuspegi asko daude indarkeria matxistak izendatu eta aztertzeari dagokionez, edo indarkeriak salatzeo estrategiak definitzen eta konponbideak proposatzen direnean. Honakoak dira eztabaida gehien sorrarazten duten alderdiak:

- Bazterkeria eta indarkeriaren arteko muga lausoa, edota emakumeen giza eskubideen urraketa guztiak indarkeria matxista izendatzeko arriskua.
- Sinplifikatzeko joera duen sailkapena egiteko arriskua, eta beraz, emakumeen bizitzetan modu interseksionalean, ezberdinetan eta maila askotan ageri diren indarkerien aniztasunarekin bat ez etortzeko arriskua.
- Nortasunen inguruko eztabaida handituz eta aldatuz doan honetan, enfasia emakumeengan jartzeak kontraesanak sortzen ditu. Izan ere, erronka da emakumeen aurkako indarkeria neurrigabea salatzeo apustu argia egitea, betiere esentzializatzeko joera duten edo errealtate binarioa erreproduzitzen duten ikuspuntuetan galdu gabe, eta heteroarautik at egoteagatik indarkeria jasotzen duten pertsonak ikusarazita.

<sup>2</sup> Asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan, Mugarik Gabe, (2017).



Analisirako marko bat mugatu genuen, nahiz eta jakin kanpoan geratuko zirela indarkeria mota asko eta behaketa posible asko, baina ezinbestekoa genuen hori ikerketa egiteko.

Albisteak hautatzeko honako kategoriak erabili ditugu:

- **Feminizidioa:** emakumeen kontrako genozidioa da. Baldintza historikoen ondorioz, neskatila eta emakumeen osotasun, osasun, askatasun eta bizitzaren kontrako eraso biolentoak eragiten dituzten praktika sozialak sortzen direnean gertatzen da (Lagarde, 2008: 216) – Emakumeak erailteza, emakume izate hutsagatik, sistema patriarkalaren ondorioz.
- **Bikote barneko genero-indarkeria:** Gizonezkoek emakumezkoen kontra gauzatzen duten indarkeria da, harreman afektibo-sexual baten testuinguruan (bikotekidea edo bikotekide-ohia); emakumeak menderatzen dituen sistema heteropatriakalaren ondorioz sortzen diren botere-harremanen azken ondorio agerikoa da. Beti sailkatu izan dugu indarkeria matxista/sexisten barnean, baina ikerketa honetarako erabaki genuen indarrean dagoen estatu-mailako legeak jasotzen duen kategoria baliatzea.
- **Sexu-indarkeria:** (bortxaketak, abusuak, sexu-jazarpena). Indarkeria honek emakumeak kosifikatzen ditu, beren gorputzak abusuen, bortxaketen eta erasoen bidez kolonizatu daitezkeen lurraldetzat baititu.
- **Irainak eta gorroto/misoginia diskurtsoak:** Linguistikoki eta hitzen bidez sistema heteropatriarkalean errotutako ideiak transmititzea, sistema bera erreproduzitzen. Emakumeenganako gorrotoa edo mespretxua darien diskurtsoak, haienganako indarkeria justifikatzea, errua egozte, etab.
- **Laneko jazarpena:** Indarkeria matxistaren aldaera da, laneko esparru eta espazioetan gertatzen dena, ezaugarri zehatzak dituena eta lan-merkatuan emakumeek pairatzen duten zapalkuntza indartzen duena.
- **Eskola-jazarpena:** Tratu txar fisikoa edo hitzekoa, eskolan gertatzen dena; lesbofobiak edo transfobiak eragin dezakete (bi kasu horiek aztertu ditugu).
- **Kaleko jazarpena:** Indarkeria-matxista mota da, kalean gertatzen dena, non emakumeak erasotuak izateko eta gizonen iritziak eta komentarioak jasotzeko arriskuan dauden (piropoak, zirriak...).
- **Indarkeria sinbolikoa:** indar fisikoarekin gauzatzen ez diren indarkeria motak, subjektu menderatzaileek subjektu menderatuei mundu-ikuskerara jakin bat inposatzearen bidez gauzatutako indarkeria (kosifikazioa; presio estetiko; emakumeek historian izandako garrantzia ikusezin bihurtzea; emakumeen itxura fisikoa nabarmentzea, albistearen gaia beharrean...).
- **Genitalen mutilazioa:** Neskatilen kanpo-genitalak osorik edo zatika erauztean datzan praktika, emakumeen sexualitatea kontrolatzeko edo gutxitzeko.
  - 1., 2. eta 3. motak: klitoriari, ezpainei eta bulbari eragiten dieten praktikak.
  - 4. mota: Adriana Kaplanek mendebaldeko praktika gisa deskribatu zituen: "dry sex" izenez ezagunak, baginako kirurgia, himena berreraikitzea, ezpain baginalak moztea...



- **Diskriminazioa/Desparekotasuna**, sexuan edo generoan oinarritzen den aurreiritzia edo bereizkeria da. Erreferentzia egiten die ere sexu-ezberdintasunetan ezarritako rol sozialen estereotipoak sustatzen dituzten baldintzei edo jarrerari. Genero-rolari buruzko sinismen eta estereotipo tradizionalei esker eusten diete jarrera sexistek. Ez da soilik jarrera indibidualen menpeko kontzeptua; aitzitik, gizarteko hainbat instituziotan barneratuta dago.

Azterlan hau 152 egunetan gauzatu dugu. Hedabide bakoitzeko, 189 eta 249 albiste artean jaso ditugu; ondorioz, diskriminazioari edota indarkeria matxistei lotutako albiste bat baino gehiago jaso dugu egunero.

Sintesi taulak eranstean ditugu (1. eranskina begiratu), Datuen azterketa (2. eranskina begiratu) eta Hipotesiak (3. eranskina begiratu).



## 3. Ikerketaren ondorio orokorrak

	Deia	El Correo	El Diario	Berria	Gara
Aztertutako egun kopurua:	139	152	152	131	151
Indarkeriei buruzko albisterik agertu ez den egun kopurua:	39	46	48	36	55
Erregistratutako indarkeriei buruzko albiste kopuru totala:	189	229	249	208	195
Indarkeriei buruz albisterei bat argitaratu diren egunak (%):	%71,94	%69,74	%68,42	%72,52	%63,58
Indarkeriei buruz egunero argitaratutako albisteen batez bestekoa:	1,4	1,5	1,6	1,6	1,3

Behaketaren bost hilabete hauetan ia egunero topatu dugu, gutxienez, indarkeria matxistei lotutako albiste bat. Albiste gehienek egitate bat kontaktzen dute, baina topatu ditugu baita ere indarkeria horiek salatzen dituzten erreportajeak, kirol arloan eta historian emakumeen ikusezintasuna salatzen dituzten sakoneko erreportajeak, soldata-arrakalari buruzkoak, etab. Aurrerago ikusiko dugunez, aztertutako hedabideetan berreskuratu behar diren hainbat praktika on topatuko ditugu, eta baita hobetzeko lantzen jarraitu behar diren hainbat alderdi ere.

### 3.1. HEDABIDEEI BURUZ

#### Hedabidearen konpromisoaz

Hedabideak parekidetasunarekin eta indarkeria matxisten salaketarekin daukan konpromiso-maila identifikatzeko gakoa da egitate zehatz bati lotuta ez dauden albiste edo erreportajeen presentzia.

Berrian, hilabete hauetan, albiste/erreportajeen %53,11n emakumeak tradizioz ezarritako roletik kanpo ikusarazten dituzte, edo indarkeria matxista motaren bat salatzen dute. Albisteen %46,89k egitate jakin bat kontaktzen dute.

Antzeko ehunekoak topatu ditzakegu Garan, egitate jakinei buruzko albisteak gailendu arren (%55,38); bertan, halaber, nabarmentzekoa da indarkeria matxistak salatzen dituzten erreportaje edo albisteen ehunekoa (%42,56).

Beste muturrean daude egitate jakin bati lotutako indarkeria matxista soilik aipatzen duten hedabideak (gehienbat, sexu-indarkeria, indarkeria matxista eta feminizidioa): Deian %70,37, El Correeon %73,80 eta El Diarion %77,46. Beste aldean, salaketa erreportaje edo albisteei, %18-24 arteko presentzia daukate.



## Erabilitako terminologia

Gertakari bezalako terminoak erabiltzen dira, %3-6 artean batez beste, Deia, El Correo eta El Diario hedabideetan. Hala ere, gero eta gutxiago erabiltzen dira, eta behera egin du ere etxeko edo familiako indarkeria terminoaren erabilera okerrak, nahiz eta hainbatetan topatu daitekeen oraindik ere.

Nabarmena da sexu-indarkeria eta indarkeria sexista terminoak erabiltzen dituzten albisteen nagusitasuna.

Emakumeen erailketen kasuan, feminizidio terminoa (emakumeak erailtzea emakume izate hutsagatik) ez da ia erabiltzen aztertutako hedabideetan.

Deigarria egin zaigu hedabideak nola jabetu diren bullying (eskola-jazarpena) terminoaz. Termino hori egoki erabiltzeko beharrezkoa da testuingurua; izan ere, maiz, jazarpen horren atzean dagoena ezkututzen da, dela lesbofobia, transfobia, lodifobia... arautik kanpo dauden gorputz- eta desira-motak jazartzea, alegia.

## Eskaintako espazioa

Aزتertutako hedabide guztietan azpimarratzeko moduko ezaugarriari erreparatu zaio, alegia, indarkeria matxistari buruzko albisteei espazio oso gutxi eskaintzen zaiela egunkarietan. Berrian %48tan eta El Correon %74tan, albiste labur gisa edo zutabeetan jasotzen dira albisteok. Gainerako hiru hedabideetan ehunekoak %60-66 artean daude. Soilik %20 dira orrialde osoko edo bikoitzeko albisteak, eta oso antzekoak dira aztertutako hedabide guztietan (nahiz eta oso ezberdinak izan trataerari dagokionez).

## Kontsultatutako iturriak

Ehuneko esanguratsu batean, %22 El Correon, %27 El Diarion eta Deian eta %40 Garan eta Berrian, ez dira iturri formal ez informalak kontsultatzen albisteetan.

Kontsultatzen direnean, oso adierazgarria da formal izendatu ditugun iturrien nagusitasuna: mugimendu feminista, erakunde publikoak, alderdi politikoak, eragile poliziak/judizialak, berdintasun adituak, eragile sozialak eta berdintasun erakundeak. Gaineratu nahiko genuke, hala ere, iturri guzti horien artean mugimendu feministak, berdintasun adituek eta berdintasun erakundeek oso presentzia mugatua daukatela, zenbaitetan anekdotikoa. Esaterako, mugimendu feminista albisteen %2-3tan agertzen da El Diario, El Correo eta Deian, %9tan Garan eta %16tan Berrian. Berdintasun adituak %4-8 artean aipatzen dira aztertutako egunkari guztietan.

Iturri polizialak dira presentzia gehien daukaten iturri formalak. Zenbaitetan albisteak sortzen dituzte (atxiloketak erasoen ondorioz, feminizidioari buruzko informazioa). Iturri judizialek baita ere, epaiketen kasuan.

Horrela, ondorioztatu dezakegu egitateak kontaktzen dituzten iturriak direla presentzia gehien daukatenak, gertatu bezala. Hala ere, gutxiengoa dira egitateak testuinguruan kokatzen laguntzen diguten iturriak, edo, bestela esanda, biktima- edo erasotzaile-eredurik gabeko egiturazko arazo baten barnean ulertzen laguntzen diguten iturriak.



Analisi atal honetan, nabarmentzeko alderdia da ere albisteen %3-10 artean iturri informalak erabiltzen direla, oraindik ere. Iturri informalak dira egitateen lekukoak, emakume biktimaren senideak, etab. Iturri-mota honen bidez, maiz, indarkeriari buruzko mitoak indartzen dira, "ez nuen espero" diskurtso errepikakorra erabilia, "bat-bateko zoramena" behar izan duelako ideia indartuta erasotzailea "mutiko arrunta" zelako, edo bestelako datuak emanda; adibidez, salaketarik jarri ez dela, eta ondorioz, emakume biktimei errua egotziz.

El Correoren kasu zehatzari erreparatuta, %2an erasotzailearen gertukoei ahotsa ematen zaie. Horrek, nolabait, indarkeria justifikatzeko mezuak eta emakumeei errua egotzen dieten mezuak hedabideetan agertu daitezzen laguntzen du.

### Indarkeria matxistei buruzko mitoen presentzia

Indarkeria hautemateko ikerketetan ageri diren mitoen zerrenda bat egin genuen<sup>3</sup>, mito horiek hedabideen bitartez zabaltzen direla jakiteko.

Ondorio orokor gisa, esan dezakegu ez dagoela mito askorik; El Correon aztertutako albisteen %70etan ez daude, eta Berriako albiste batean ere ez dago mitorik. Lanean jarraitu behar dugu hedabideetatik albisteetan ageri diren zenbait premisa faltsu guztiz ezabatzeko.

El Correon, Deian eta El Diarion presentzia gehien daukaten mitoa da erasotzaile eta biktima gehienak etorkinak direla dioena. Horrela, analisirako bestelako faktoreak saihesten dira, baita emakume biktimen zauggarritasun-faktoreak ere, pertsonen jatorria adieraziz soilik etorkinak direnean. Ondorioz, azalpen sinplista eta arrazistetan sakontzen da.

Topatu ditugun beste mito batzuek indarkeria justifikatzearen aldeko ideia indartzen dute. Esaterako, droga eta alkohol gehiegi kontsumitzea (%4,6 El Diarion), erasotzaileak estres handiko unea pairatzea (%3,4 Deian), edo indarkeria matxistak klase sozial baxuko artean gertatzea gehienbat (%3 El Correon), eta, areago, egitateak erasotzailearen patologia individual baten ondorio direla dioten albisteak (%2 El Correon).

Mito horiek gutxitan islatzen badira ere, estereotipo horiek indartzeak ez dio ekarpenik egiten indarkeria matxisten aurkako borrokari, eta ez du aditzera ematen indarkeria horren egiturazko arazoa, aurreiritzi arrazista eta klasistetan sakontzen baitu.

### Biktima izandako emakumeari buruzko informazioa

Indarkeria matxistei aurre egingo dien masa soziala eraikitzen hasteko, indartu egin behar da indarkeria matxistak emakumeen eskubideen urraketa larria direlako ideia, eta emakumeak, gure gizarteetan, eskubide-defizitarekin bizi direlako ideia. Ez dago indarkeria matxistaren biktima izandako emakumearen profil jakin bat, ez dago indarkeria justifika dezakeen faktore sozial, kultural edo ekonomikorik. Aitzitik, gizonen menderakuntza- eta kontrol-harremanengatik gertatzen da, edozein dela ere maila soziala.

3 "Macroencuesta de violencia contra la mujer 2015"n, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministeritza, Centro de Publicaciones, Madrid (2015), eta "Percepción Social de la violencia de género por la adolescencia y juventud"-en, Centro de Investigaciones Sociológicas (2013).



Emakume biktimei buruz hedabideetan zabaltzen den informazioak mitoak erreproduzitzea sustatu dezake, lehenago esan bezala, eta gugandik urrundu eredu bat dagoela pentsarazten digulako; aitzitik, informazioaren trataerak biktimearekin identifikatu gaitezen eragin dezake, eta emakume baten kontrako indarkeriak guztioi eragiten digula sentiarazi, harekin enpatizatuta.

Nahiz eta gehienetan emakumeen trataera neutroa izan aztertutako 5 egunkarietan, nabarmentzekoa da oraindik ere badaudela zenbait informazio, adierazten dutenak indarkeria matxistek emakume jakin batzuei eragiten dietela, emakume etorkinei eta baliabide ekonomiko gutxikoei, alegia. Bestelako informazio batzuek ere emakumea erruduntzat jotzen dute, nolabait; esaterako, etengabe nabarmentzea aurretiko salaketarik ez zegoela, emakumeak salaketa kendu zuela, hiltzailearekin bizi zela, bakarrik bidaiatzen ari zela edo gaueko ordu txikietan kaletik bakarrik zebilela... Argudiaketa askok emakumeen jokabidean jartzen dute arreta, eta ez erasotzaileen jokabidean.

Emakumeei helarazten zaien mezua argia da: kontrolatu behar dute nola jantzi, nondik joan eta zein ordutan, noiz jarri salaketa edo nola maneiatu beren bizitzak. Ez da igortzen antzeko mezurik gizon erasotzaileen bizitzaren gaineko kontrolari buruz.

Halaber, nabarmentzekoa da albistean ez dela ageri egoera berean dauden emakumeentzako informazio baliagarriak; adibidez, arreta telefono bat edo laguntza eskaintzen duten elkarteei buruzko informazioa. Telefono zenbakia Deian ageri da albisteen %4an, eta gainerako egunkarietan ez da ageri, edo soilik %1ean ageri da.

Ez dago bestelako informazio-motarik, bat ere ez Garako albisteen %53tan, Deiaiko %54tan eta Berriako %46tan. Aldiz, El Correo eta El Diarion %60tan baino gehiagotan ageri da informazioa, bi kasutan salaketari oso lotuta.

### Albistea testuinguruan kokatzea

Atal honetan, berriz ere, ezberdintasun nabarmenak antzeman ditugu hedabideen artean. Berria eta Gara nabarmentzen dira; %80tan eta %72tan hurrenez hurren, albistek testuinguruan kokatzen dituzte indarkeria matxista gizarte osoa kaltetzen duen arazo sozial larria dela eta bere oinarria patriarkatua dela azalduta, eta hortaz kasu guztiak erlasionatuta daudela oinarri bera partekatzen dutelako.

Bestalde, Deian %53tan, El Diarion %58tan eta El Correon %67ra arte, albistea egitate isolatu gisa ematen dute, testuinguruaz informaziorik eman gabe eta beste kasuei buruzko erreferentziarik jaso gabe.

### Indarkeria sinbolikoa

Indarkeria sinbolikoaren aldaerak salatu edota, kontrara, betikotzen zituzten edukiak aztertu ditugu.

Nabarmentzekoak izan dira emakumeek historian egindako ekarpenak eta beren bizitzak ikusezin bihurtzea salatzen duten albistek. Hilabete horietan etengabe agertu ziren horri buruzko albistek: Berrian %62, Garan %50, El Diarion %47, Deian %40 eta El Correon %24, presentzia txikiagoa izanik ere adierazgarria dena.





Alderdi positibo gisa, azpimarratzekoa da publizitate sexista salatzen kanpainak oihartzun nabarmena izan dutela. Garan %20an islatu da hori, eta gutxiago El Correon, %7an.

Zoritxarrez, aipatutakoen pareko albisteak topatu arren, bestalde, egunkarien edukiek emakumeak kosifikatzen jarraitzen dute, edota tradizionalki egokitutako rola indartzen dituzte (amatasuna, edertasuna...). Topatu ditugun albiste batzuetan (aztertutako ia %40, El Diario, El Correo eta Deiairen kasuan), emakumeak objektuen pare tratatzen dituzte: izan konpainiarako objektu gisa, izan beren itxura nabarmenduz eta ez albistearen gaia, beren lanbidea, alegia. Praktika horien eragina oso adierazgarria da.

### Kasuen jarraipena

Kazetaritza-praktika ona da, halaber, indarkeria egitateei jarraitzen dieten prozesu polizialak eta judizialak hedatzea. Horrela, ikusi dugu %70etan Garan zein Berrian prozesu judizialez informatzen dela, Deian %38tan, El Correon %43tan eta El Diarion %58tan.

Prozesu polizialei buruzko informazioaren ehunekoak aldatu egiten dira hedabide batetik bestera; Gara eta Berrian %30eko presentzia dute, eta Deian %61era arte heltzen da ehunekoa.

## 3.2. ERAKUNDEEK EDO ALDERDI POLITIKOEN HEDABIDEETAN DUTEN DISKURTSOAZ

Txostenaren hasieran adierazi bezala, ahotsaren gaian sakondu nahi izan dugu; hedabideen bitartez gizartearengana iristen diren erakundeen eta alderdi politikoen mezuetan, hain zuzen.

Ondorio nabarmenetako bat da ez dagoela alderdi politikorik ahots propioa edo aparteko enfasia duenik indarkeria matxistei dagokienez. Soilik aztertutako albisteen %1,5 eta %3 artean aipatzen dira alderdiak, eta ez dute aipatzeko moduko ahots propioarik gure gizarteetako eskubide-urraketa handienetakoa denari buruz.

Hortaz, goazen erakundeen azterketatik ateratako ondorioak zehaztera (erakundeek ari garenean udalak, Eusko Jaurlaritza, aldundiak, Emakunde eta bestelako berdintasun organismoak barne hartzen ditugu).

Indarkeria matxistari lotutako albisteetan erakundeek daukaten presentzia %53koa da Deiairen kasuan, eta %25ekoa El Diarioren kasuan. Udalak dira presentzia handiena daukaten erakundeak, batez ere feminizidioak gertatu diren udalerrietako alkateek adierazpenak egiten dituztenean. Emakunderen presentzia nabarmentzekoa da Berrian eta Garan, %4-5eko presentziarekin; aldiz, ia ez da agertzen aztertutako gainerako egunkarietan, eta gauza bera gertatzen da bestelako berdintasun organismoekin, alegia, berdintasun teknikariek, udalekin, aldundiekin, etab.

Aipatzekoa da erakundeen mezuek ageri direnean ez direla aipatzen egiturazko kausak edo egitate isolatu gisa tratatzen direla albisteen %50etan baino gehiagotan.

Halaber, frogatu dugu erakundeen diskurtsoetan ere hedabideen terminologia akats berdinak errepikatzen direla; adibidez, eraso gertakari hitzarekin deituta albisteen %2tan. Ehuneko oso



altuan (Gara nabarmentzen da %52ra iritsita) egitateari ez zaio erreferentziarik egiten indarkeria matxista, sexista, generokoa etab. deituta, hau da, ez zaio aparteko kalifikaziorik egiten.

Transmititzen den elkartasun mezua prefabrikatutako mezua izan ohi da, azken biktimen izenekin pertsonalizatzen dena, eta konpromiso zabalak hartzen dira "gaitz honen kontra" lanean jarraitzeko. Ez dugu konpromiso jakinik topatzen; adibidez, zehazki zer egingo duten jakiteko zerk egin duen huts urruntze-agindu batek funtzionatu ez duenean.

Uste dugu garrantzitsua dela azken urteetan, batez ere feminizidio kasuetan edo oihartzun handia izan duten sexu-indarkeriazko kasuetan, erakundeak kalera irteten direla pankartarekin, gertatutakoa salatu eta emakume biktimari elkartasuna adierazteko. Gizarte-mugimenduek berezkoa duten tresna bat erabili dute, salaketa eta elkartasuna adierazteko.

Geure buruari galdetzen diogu zein mezu botatzen den erakundeetatik arazo sozial eta politiko bat manifestazio batean salatzen denean, eta erakunde gisa erantzukizunik hartzen ez denean eta konpromisorik zehazten ez denean indarkeria matxistak ezabatzeko; finean, ez dago autokritikarik beste hilketa matxista baten aurrean.

Azkenik, aipatzekoa da erakundeek ez dutela albisterik sortzen indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazioaz edo salaketaz; aitzitik, erakundeak soilik egitate jakin bati buruzko albisteetan agertzen dira.

## Lan-hipotesiak

Zehatzago jakiteko indarkeria matxisten trataera egokian edo okerrean zein alderdik eragiten duten, hainbat lan-hipotesi pentsatu genituen, loturak ezartzen laguntzen digutenak, eta hortaz, gomendioak eratzen lagunduko digutenak:

Berretsitako hipotesiak:

- Erakundeen diskurtsoek ez dituzte kausak aipatzen hedabide guztietako albisteen %50etan, Deian salbu (%46).
- Erakundeak soilik ageri dira egitate jakin bat gertatzen denean, %59tan Berrian eta %84tan El Diarion.
- Erasotzailea justifikatzeko argudioak agertzen dira oraindik ere: hipotesi hori betetzen da Deian, El Correion eta El Diarion. Ehuneko txikia da, baina adierazgarria.
- Oraindik ere biktima izandako emakumeei leporatzen zaie errua: modu berdinean islatzen da Deian, El Correion eta El Diarion, aurreko hipotesiak baino ehuneko pixka bat altuagoarekin; %4,3 El Correoren kasuan.
- Berrian salbu, gainerako 4 hedabideetan espazio gutxi eskaintzen zaie (albiste laburrak eta zutabeak) indarkeria matxistei buruzko albisteei.
- Zenbait atalen bidez (iritzi artikulua, zuzendariari gutunak, etab.) diskurtso misoginoak eta emakumeenganako irainak sartzen dira hedabideetan; El Diarion 3 bider egiaztatu dugu hori.



